



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 23a

126. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait araugintza-neurri har ditzan, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egitean aurrerabidea egiteko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak ezar ditzan, ezkutuko ekonomiaren eta jarduera irregularren aurkako borrokan autonomoen kolektiboa babesteko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-sorrerarako formula gisa abian jar daitezen lan autonomia sustatu eta bultzatzeko ekintzak. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pizgarriak eman ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen sormen eta talentuari laguntzen dieten inbertsiogileak eta ekintzaileak konprometitzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan, urtegien segurtasunaren arloko legeria eta araudi indardunak alda ditzan eta Aspuzko urtegiaren proiektua baztertu dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuan sei hilabeteko epean aurkez dezan araudi bat, zeinaren bidez ahalbidetuko baita sare elektrikora konektatutako autokontsumo-araubidean teknologia fotovoltaiakoarekin energia elektrikoa ekoizteko instalazioei aplikatu beharreko administrazio-prozedurak ezartzea.. Mozioa erretiratzea (10. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait araugintza-neurri har ditzan, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egitean aurrerabidea egiteko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait araugintza-neurri har ditzan, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egitean aurrerabidea egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, premiari egiten da aurrerabidea egitera Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko eskubideetan.

Nafarroako Lan Autonomoaren Plana 2017ko azaroan onetsi zen, eta haren helburu nagusia argi zegoen oso: enpresa-ehundura osatzen duten pertsonen jarduera sustatzea, horiek baitira enplegua sor dezaketenak. Arreta berezia eman behar zaie enpresaburu txikiei eta autonomoei, Nafarroako enpresa-ehunduraren % 90 baino

gehiago baitira. Beren jardueran topatzen dituzten oztopoak ezabatu behar dira, eta neurriak ezarri Foru Komunitatean norberaren konturako lana erraztu, sustatu eta egonkortzeko, Lan Autonomoaren Estatutuko V. tituluak ezartzen duen moduan.

Horretarako, planak helburu zehatz batzuk jasotzen ditu. Haien artean ekimen honetan azpimarratzen ditugu emakume ekintzaile eta autonomoei zuzendutako ekintzak.

Helburu zehatz horri dagokionez, agiriak adierazten du Gobernuak oraindik gehiago hobetu behar duela autonomoaren babes soziala, batez ere autonomoen kolektibokoak diren emakumeena. Horregatik, ohartarazten du arlo publikotik baldintzak sorrarazi behar direla, emakumezko langile autonomoak seme edo alaba bat izan bezain laster izan dezan modua bere eskubidea baliatzeko; hots, seme-alabak zaintzeko lanaldimurrizketarako edo lana eta familia uztartzeko eskubidea. Hori da soldatapeko emakume langile-enganetik bereizten dituen gauzetako bat.

Amatasun batak irau bitarteko bitarteko kontratu edo errelebo-kontratuekin lotutako hobariak ematen dira, bakarrik, emakume autonomoaren egiazko amatasun-batak dirauen bitartean. Kontuan harturik negozio horietan emakume autonomoek bakarka hartu ohi dutela negozioaren ardurara, amatasun bajaran aurreko hilabeteetan pertsona hori kontratatu eta bajaran zehar erreleboa egin dezan hari prestakuntza ematearen kostua izugarria da. Horren ondorioz, emakume autonomo askok negozio bideragarriak utzi behar izaten dituzte, ezin dietelako aurre egin hilabete horietan zehar hobaririk ez duen kontratazioaren kostuei, edo ausartzen ez direlako beren negozioak uztera beraiekin bizi ez edo horretarako prestatu ez diren pertsonen ardurapean.

Gauza bera gertatzen da bajaren ondoko hila-bete eta are urteetan ere, zeinetan seme-alaben edoskitzea eta zaintza oztopo argia baitira, emakumeentzat zein gizonentzat, familia-bizitza norberaren konturako jarduerarekin bateragarri egiteko. Aurrera egin behar dugu gizarte askoz berdinzaleago bat eta, beraz, erantzunkideago bat lortzeko. Horretarako, ezinbestekoa da administrazioek neurriak abiaraztea, zeinek erraztuko duten zaintzen banaketa orekatua eta etxean erantzukizun partekatua egotea. Neurri horiek, gainera, langile autonomo guztientzat bermatuko dute lana eta familia bateragarri egitea.

Horiek horrela, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri

egiteko eskubideetan aurrerabidea egiteko xedez, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluarekin adosturik, zenbait araugintza-neurri har ditzan (fiskalak, tributu eta lan arlokoak...), langile autonomoen lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko eskubidean eta zaintzen ardurakidetzan aurrerabidea egiteko xedez.

Iruñean, 2018ko urriaren 11n

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak ezar ditzan, ezkutuko ekonomiaren eta jarduera irregularren aurkako borrokan autonomoen kolektiboa babesteko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak ezar ditzan, ezkutuko ekonomiaren eta jarduera irregularren aurkako borrokan autonomoen kolektiboa babesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, premiatu egiten da neurriak ezartzera, ezkutuko ekonomiaren eta jarduera

irregularren aurkako borrokan autonomoen kolektiboa babesteko.

Nafarroako Lan Autonomoaren Plana 2017ko azaroan onetsi zen, eta haren helburu nagusia argi zegoen oso: enpresa-ehundura osatzen duten pertsonen jarduera sustatzea, horiek baitira enplegua sor dezaketanak. Arreta berezia eman behar zaie enpresaburu txikiei eta autonomoei, Nafarroako enpresa-ehunduraren % 90 baino gehiago baitira. Beren jardueran topatzen dituzten oztopoak ezabatu behar dira, eta neurriak ezarri Foru Komunitatean norberaren konturako lana erraztu, sustatu eta egonkortzeko, Lan Autonomoaren Estatutuko V. tituluak ezartzen duen moduan.

Horretarako, planak helburu jakin batzuk aipatzen ditu; horien artean, ekimen honetan nabarmentzekoak dira ezkutuko ekonomiaren eta iruzur fiskalaren aurkako borrokako ekintzak. Bada, gaur egun, dokumentua argitaratu zenetik urtebete iragan denean, ez da neurri aipagarri bakarra ere abian jarri autonomoen kolektiboa babesteko ezkutuko ekonomiaren eta jarduera irregularren aurkako borrokan.

Agerikoa da ezkutuko ekonomiaren, jarduera irregularren, aitortu gabeko lanaren edo iruzuraren ondorioen larritasuna; izan ere, diru-bilketa publikoan eragina edukitzeaz gainera, merkatua

distortsionatzen dute, eta lehia desleialari mesede egiten diote legezketasunaren esparruan jarduten dutenen aurka.

Horregatik, eta autonomoen kolektiboa ezkutuko ekonomiaren eta jarduera irregularren aurkako borrokan babesteko, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako langile autonomoak ukitzen dituzten jarduera irregularrak detektatu, borrokatu eta prebenitzera bideratutako jarduketak antola ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kanpainak egin ditzan,

xede dutenak Nafarroako gizarte osoa sentibilizatzea jarduera irregularren eta deklaratu gabekoen eragin negatiboari buruz, bai eta horietara joz gero aplikatu daitezkeen zehapenei buruz ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz sor dezan berariazko batzorde edo lantalde bat, lan autonomoaren esparruko jarduera irregularrak detektatu, borrokatu eta prebenitzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lan Autonomoaren Lanbide-elkarteak sar ditzan Iruzzurraren aurka Borrokatzeko Batzordean.

Iruñean, 2018ko urriaren 11n

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-sorrerarako formula gisa abian jar daitezten lan autonomia sustatu eta bultzatzeko ekintzak.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegu-sorrerarako formula gisa abian jar daitezten lan autonomia sustatu eta bultzatzeko ekintzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Mozioaren bidez premiatzen da enplegu-sorrerarako formula gisa abian jar daitezten lan autonomia sustatu eta bultzatzeko ekintzak, izapide administratiboak gutxitzen dituztenak eta autoenplegurako nahiz kontratazioari laguntzeko proiektu berriak ernatzen dituztenak, kolektibo horren fiskalitateari laguntzeaz gain.

Nafarroako Lan Autonomoaren Plana 2017ko azaroan onetsi zen, eta haren helburu nagusia argi zegoen: enpresa ehundura osatzen duten pertsonen jarduera sustatzea, horiek baitira enplegua sor dezaketenak. Arreta berezia eman behar zaie enpresaburu txikiei eta autonomoei, Nafarroako enpresa-ehunduraren % 90 baino gehiago baitira. Beren jardueran topatzen dituzten oztopoak ezabatu behar dira, eta neurriak ezarri Foru Komunitatean norberaren konturako lana erraztu, sustatu eta egonkortzeko, Lan Autonomoaren Estatutuko V. tituluak ezartzen duen moduan.

Horretarako, planak hainbat helburu zehatz planteatzen ditu; horien artean, ekimen honetan nabarmentzen ditugu lan autonomia sustatu eta bultzatzeko ekimenak, enplegua sortzeko formula gisa, izapide administratiboak gutxitu eta autoenplegurako eta kontratazioa laguntzeko proiektu berrien agerpena ernatzen dutenak, kolektibo horren fiskalitateari laguntzeaz gainera.

Jakina da arrisku eta ezegonkortasun handiak dituen kolektibo bat dela, bereziki proiektu berriak abian jartzeari dagokionez, eta Administrazioa da, ahal duen neurrian, ezegonkortasun horretan laguntza eman eta hura arindu behar duena, zeren eta langile autonomoak zinez babes gabe baitaude negozio bat hasteko eta mantentzeko garaian dituzten arrisku ugarien aurrean, eta ez baitute Administrazioa ikusten aliatu baten moduan, ezta hurrik eman ere.

Hori dela-eta, Nafarroan lan autonomoa sustatu eta bultzatze aldera, honako erabaki-proposamena aurkeztu du Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan sinplifikatze administratiboa hobetzeko, izapideak gutxitzeko eta oztopo burokratikoak kentzeko ekintzaileen eta lan autonomoaren proiektuetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintzaileen eta lan autonomoaren proiektuak abian jartzeko traba eta oztopo nagusiak detektatzeko batzorde bat sor dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du leihatila bakarra ezar dezan jarduera ekonomikoa abian jartzeko izapide guztiak kudeatzeko (administrazio ezberdinen arteko koordinazioa) eta ekintzaileei laguntza emateko guneak garatzeko, lurraldean banatuta.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintzailetzari laguntzeko eta lan autonomoa sendotzeko neurri fiskalak susta ditzan.

Iruñean, 2018ko urriaren 11n

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez premiatzen da zergadunaren defentsarako zerbitzu bat erregulatzera.

Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 34.2 artikulua Zergadunaren Defentsarako Kontseiluari esleitzen dio zergadunen eskubideen eraginkortasunaz arduratzeko eginkizuna, halako moduan non zergadunek aurkeztutako kexak aztertuko baititu eta kasuan kasuko iradokizunak eta proposamenak egiten baititu.

Zergadunaren Defentsarako Kontseiluak lan handia egin du indarrean den Tributuei buruzko Lege Orokorra onetsi baino lehen bai eta gero

ere, bere eginkizun nagusia –zegapekoen eskubi-deen defentsa– eginez eta Tributu Administrazioak ematen dituen zerbitzuak hobetzea ahalbidetuz, zerbitzu horien erabiltzaileek adierazitako kexei esker ez ezik, Kontseiluak berak planteatutako iradokizunen eta askotariko proposamenen bidez ere, seinalatuki.

Gure erkidegoan, Tributuei buruzko abendua-ren 17ko 58/2003 Foru Lege Orokorra daukagun arren –horrexek erregulatzen ditu, 9. artikuluan hain zuzen ere, zergapekoen eskubide orokorrak–, ez daukagu zergadunaren defentsarako araudi-rik, Nafarroako Tributu Ogasunak berak ere 2017ko Memorian adierazi duenez, non aitortzen baitu gaur egun ez dagoela kekek aurkezteko berariazko kanalik, ez eta kekek sistematikoki artatzeko prozedurarik ere.

Badugu Europar Zergadunaren Kode bat, Europako Batzordeak 2016an argitaratua, zeinak ezartzen baititu zergadunen eta Europako tributu

administrazioen arteko harremanak arautzen dituzten eskubide eta betebeharrak nagusiak biltzen dituzten printzipioak. Dokumentu horren zati handi bat Estatuko nahiz foru erkidegoko tributu-arau-dietan ageri da jasota. Dokumentuan esaten denez, “zergadunek erreklamazioak aurkezteko eskubidea izanzen dute”, eta “zergadunek informata egon behar dute noiz eta nola aurkara ditza-keten tributu administrazioen erabakiak eta ekintzak”.

Horregatik, eta nafarren bermeak areagotzeko, honako erabaki proposamen hau aurkezteko dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko.

Iruñean, 2018ko urriaren 16an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da pizgarriak eman ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen sormen eta talentuari laguntzen dieten inbertsiogileak eta ekintzaileak konprometitzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita pizgarriak eman ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen sormen eta talentuari laguntzen dieten inbertsiogileak eta ekintzaileak konprometitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezteko, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espainiako Gobernuak berriki iragarri du delibero irmoa duela Espainia 'Nazio Ekintzaile' bihurtzeko (ingelesez 'Startup Nation' deitzen dena). Era horretan, gobernu zentralak iragarri dituen neurriak ez lirateke oharkabea pasa beharko Foru Komunitatean, Nafarroarentzat aukera handia izan litekeelako ekintzailetzako ekintza hori gidatzea, gure lurraldean biltzen diren baldintza guztiz mesedegarriei esker.

Hiru unibertsitate egotea, urtero gure ikasgele-tatik ateratzen diren goi mailako ehunka ikaslere-kin, balizko inbertsio-egile pribatuen multzo bat, zeinei kapital publikoa batu ahalko litzaiekeen, eta munduko bizi-kalitate altuenetako bat, hori guztia haztegi onena da nazioartean ekintzailetzako proiektuak erakartzeko, edo gure komunitatean

bizi den talentuaren artean intraekintzailletza sustatzeko.

Gure mundu aldakorrean ideiak funtsezko oinarri dira berrikuntza eta etorkizuneko bermerako. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu proiektu eta ideia berrien sorkuntza bilatzea, etorkizunean ikerketa eta garapena kanpoan erosi ordez bertatik saldu ahal izateko. Horrela egiten ari dira gertuko beste erregio batzuk, bere garaian berezko sorkuntzaren aldeko apustua egin zutenak.

Zientziari eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea onetsi ondoren ezinbestekoa da enplegagarritasunaren eta enpresa-ehundura eraikitzearen aldeko apustuaren osagarri jartzea, gaurko garaiekin bat, ekintzailtzari emandako bultzada sendo bat, Nafarroako ongizatearen maila altuari eusten eta hori igoarazten saiatuz, betiere ziurtaturik prozesu hori lagungarri izatea genero-berdintasunerako eta erregio-egituraketarako.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du:

– Pizgarriak eman ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen sormen eta talentuari laguntzen dieten inbertsiogileak eta ekintzaileak

konprometitzeko; bereziki, Nafarroako S3 estrategiak adierazitako arloetan kokatutako proiektu disruptiboen alde badaude.

– Sozietateen gaineko zergan ahalbidetu dezan I+G+b arloko jarduerak sortutako kreditu fiskalen transferentzia; kreditu horiek jaso ahalko lituzkete finantzaketan, hornituriko teknologian edo proiektuetan parte hartzen duten enpresek.

– Aurrekontu-lerro bereziak ezar ditzan emakume ekintzaileentzat; bereziki, edozein hezkuntza-etapatan egon litezkeen beste emakume batzuek STEM ikasketak aukera dituzaten sustatzeko eredu izan daitezkeenentzat.

– Konektibitatea susta dezan Nafarroako Foru Komunitatearen eta Espainiako, Europako eta munduko inkubagailu eta azeleragailuen sareekin; eta, gainerako guneekin koordinatuta –esate baterako, South Summit, munduko ekitaldi muntadunenetako bat startup deritzenen eta ekintzaile-tzaren arloan–, bultzatzen nazio eta nazioarteko mailerako topaketak egitea gure lurraldean, eta ziurta dezan Nafarroa presente egotea nazioartean garrantzia duten ekitaldietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 16an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan, urtegien segurtasunaren arloko legeria eta araudi indardunak alda ditzan eta Aspurzko urtegiaren proiektua baztertu dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan, urtegien segurtasunaren arloko legeria eta araudi indardunak alda ditzan eta Aspurzko urtegiaren proiektua baztertu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Esako urtegia handitzeko proiektua –2000n esleitu zen– arazo, zalantza eta ika-mika iturri izan da etengabe. Hainbat eragile politikok, erakundek eta herritarrek –hala toki-esparrukoek nola foru erkidegokoek– auzitan jarri dute, eta auzitan jarri izan da arrazoi oso ezberdinengatik: segurtasuna, lurraldeari eta ingurumenari ekarritako eragina, kultur ondareari ekarritako eragina, finantzaketa, proiektuaren egokitasuna, premia eta bideragarritasuna bera, eta are kudeaketaren opakutasuna eta gardentasun urria.

Oso esanguratsua da kontuen auzitegiaren 1.279 zenbakiko txostenak proiektuaren finantzaketari buruz dioena: Nekazaritza, Elikagai eta Ingurumen Ministerioak eta bere mendeko era-

kundeeek 2014an egindako kontratazioari eta horren 2017ra bitarteko exekuzioari buruzko fiskalizazio-txostena.

Txostenak honela laburbiltzen du auzia:

“Esako urtegia handitzeko obrak 2000ko abenduan esleitu ziren, 113,5 milioi euroan, 55 hilabete epean egiteko. Zenbatekoa 120,4 milioi eurokoa da guztira, kontrol eta zaintza zerbitzuak –6,9 milioi euro– gehituz gero. Halere, 2017an, obrak bukatuta egon behar zirenetik jada 12 urte igarota, zenbateko exekutatua gutxienez ere 253,5 milioi eurokoa da; obrarako esleitutako kostuaren bikoitza baino nabarmen gehiago, alegia. Eta kontuan hartzen baldin bada Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren arabera 94,5 milioi euro falta direla egiaztatzeko, guztira 348 milioi eurokoa izanen litzateke zenbatekoa; hau da, esleitutakoaren halako hiru, gutxienez ere”.

Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorretan, berriz, 188 milioi euroko inbertsioa ageri da jasota. Hala bada, proiektuaren kostua 442 milioi ingurukoa izanen litzateke; hasiera batean aurreikusitakoaren halako lau.

Eta, bestalde, hor dago proiektuaren segurtasunaren auzia, eta hor datza, hain zuzen ere, proiektu honen gaineko eztabaidaren muina, inguruko bizilagunak gehien kezkatzen duena eta esku-hartze erabakitsuena eta azkarrena exigitzen duena.

Proiektua bete bitartean gorabeherak izan dira bata bestearen atzetik, eta horien artean nabarmentzekoak dira izandako luiziak eta mazelalerradurak; horien artean, bereziki larria eta esanguratsua izan zen 2013an gertatutakoa, urtegitik hurbil dauden bi auzoberritako etxebizitzak hustea eta, gero, desjabetzea eragin baitzuen.

Urtegia handitzeko obren segurtasunari eta mazelen egonkortasunari buruzko ziurgabetasuna etengabea izan da, eta da, zalantzak ez baitira egundo argitu, eta hala jaso da hainbat eragileren agerraldi eta adierazpen ugarietan nahiz Nafarroako Gobernuaren departamentuarterko lantalde batek 2016ko ekainean taxututako “Esako urtegia

handitzeko obren segurtasunaren inguruko zenbait alderdi ebaluatzeko txosten teknikoa” delakoa.

Urtegiaren segurtasunari buruz nabarmendu beharreko beste alderdi batzuei dagokienez esan beharra dago ez dagoela segurtasun-faktoreari buruzko inolako ziurtasunik, eta hori funtsezkoa da munta horretako obra batek eskatzen duen segurtasunarekin jarduteko. Faktore horri buruzko araudi zehatzik ere ez dago, eta horrek kasuan kasuko kudeatzailearen esku uzten du gisa horretako proiektu bat egitea esate baterako Italia edo AEB bezalako beste estatu batzuetan exigituko litzazkiokeen bermeak izan gabe. Esan gabe doa urtegia proiektuak esleitzen dion ahalmenarekin betetzeak arriskua areagotuko lukeela.

Segurtasunik ezak hor dirau, mazelak mugitzen jarraitzen du –hala aitortzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak berak 2018ko ekainean egindako txostenak–, eta larrialdi-plana aktibatuta dago oraindik urtegian.

Aipatutako auzi eta ziurgabetasun horiek guztiek –bereziki, segurtasunari buruzkoek– eragin dute etengabeak izatea auziari buruzko adierazpenak eta proiektua geldiarazteko eskaerak. Azkenetako bat izan zen, hain zuzen ere, Nafarroako Parlamentuak 2018ko ekainaren 18an onetsitako adierazpen instituzionala, zeinean gogora ekartzen baitira Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren jokabidearen ilunkeria eta aurrekontu-deskontrola, segurtasunaren afera eta obrak geldiarazteko eskaera.

Nafarroako Parlamentuaren adierazpen instituzionalean bertan aipatzen da Nafarroako Gobernuak Esako urtegiako eskuineko mazelaren egonkortasunari eta segurtasun-ebaluazioari buruz agindutako azterlan independentea, zeina oraintsu esleitu baita eta zazpi hilabeteko epean taxututa egon behar baitu. Txostena mamituko da eredu geologiko, hidrogeologiko eta geotekniko baten eratzean eta, halaber, Esako urtegiaren eta haren mazelen eredu sismotektoniko berariazko baten eratzean.

Espainiako Gobernuak, berriz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren bidez, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari agindu dio Esako urtegia handitzeko obren segurtasunari buruz eskueran dagoen informazio guztia azter dezan.

Azaldutako arazo horiek ez ezik, oraintsu mahai gainean jarritako beste bat ere badago –oraingoz aukera bat baino ez dena–: Nafarroako Aspuzko herrian urtegi bat egiteko proiektu baten posibilitatea. Proiektu hori gauzatuko balitz, presa

berri bat eraikiko litzateke, eta hamar kilometroko tunela ere bai Leire mendilerroan, horrek lurraldean eta ingurumenean izanen lukeen eraginarekin. Horren guztiaren xedea Esako urtegia handitzea litzateke; asmo hori, ordea, ziurgabetasunez josita dago eta, hartara, Aspurtzen proiektatutako balizko obra horrek are zentzu gutxiago izanen luke.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Esako urtegia handitzeko proiektuari eta azpiegitura horren kudeaketari buruzko elkarrizketa ireki eta anitza behar dela, bai gizartean bai erakundetan, eta azaltzen du ados dagoela presaren segurtasunaren eta kudeaketaren jarraipen-batzorde bat sortzeko erabakiarekin, zeinean egonen baitira –ministerioaz eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaz gain– Nafarroako eta Aragoiko gobernuak, ukitutako udalak, Bardeako ureztatzailleak eta urtegia handitzearen ondorioz ukitutakoen elkarteak. Halaber, batzorde horren lana gardentasunez eta zalutasunez egin dadila eskatzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari eskuragarri dagoen informazio guztia aztertzeko xedearekin agindu dion azterlanean kontuan har eta balora daitezen Nafarroako Gobernuaren departamentuarterako lantalde batek 2016ko ekainean egindako “ebaluazio-txosten teknikoaren” konklusioak nahiz Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunari eta segurtasun-ebaluazioari buruz Nafarroako Gobernuak 2018ko urrian eskatutako txostenetik heldu diren konklusioak eta gomendioak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan, salbu eta obren eta presaren segurtasunari dagozkionak, harik eta argitzen ez diren arte segurtasunari buruzko auziak; besteak beste, horretarako eginen diren aztelan independenteen bidez. Geldiarazpen horretan halaber sartuko dira Sigüésen inguruan egiten ari diren obrak eta jarduketak, halako moldez non, baldin xedatzen den betetze-kuotak ez baditu obra eta jarduketa horiek beharrezko egiten, behin betikoz geldiaraziko baitira, eta desjabetze-prozedurak atzera botako.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du presen segurtasunaren arloko legedi eta araudi indardunak alda ditzan; hartara, segurtasun-faktore bat ezarriko da mazelan eta ezponden luizi-arriskuen arloan besteak

beste, arlo horretan beste estatu batzuetan –esate baterako, AEBetan, Portugalen edo Italian– duten mailara heltzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Aspurtzen kokatuko litzatekeen presaren proiektua baztertu dezan eta

behin betikoz erretira dezan are hipotesi gisa jasota legokeen plan orotatik.

Iruñean, 2018ko urriaren 18an

Foru parlamentariak: Unai Hualde Iglesias, Dabid Anaut Peña, Rubén Velasco Fraile eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da Parlamentuan sei hilabeteko epean aurkez dezan araudi bat, zeinaren bidez ahalbidetuko baita sare elektrikora konektatutako autokontsumo-araubidean teknologia fotovoltaikoarekin energia elektrikoa ekoizteko instalazioei aplikatu beharreko administrazio-prozedurak ezartzea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa erretiratu duela. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuari premiatzen da Parlamentuan sei hilabeteko epean aurkez dezan araudi bat, zeinaren bidez ahalbidetuko baita sare elektrikora konektatutako autokontsumo-

araubidean teknologia fotovoltaikoarekin energia elektrikoa ekoizteko instalazioei aplikatu beharreko administrazio-prozedurak ezartzea. Mozioa 2018ko martxoaren 23ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

